



## Gipuzkoako eskualdeko ekintzailetzarako ekosistema indartzeko programa.

Urtea :2017 | Ekonomia Sustapena

### Deskribapena

Programa honen helburua da eskualdeko azpiegiturak indartzea eta hazkundera azkartzeko eta proiektu ekintzaileen arrakasta bermatzeko diseinatutako antolakuntza duten enpresa proiektu berriei eta enpresa sortu berriei laguntzeko jarduerak bultzatzea.

### Entitate onuradunak

Gipuzkoako eskualdeko garapen agentziak, beren eskualdean garapen agentziarik ez duten Gipuzkoako tokiko erakundeek, mankomunitateek eta udalek eratutakoak.

### Diru laguntzaren xede diren jarduerak

Enpresa proiektu berriak eta enpresa sortu berriak bultzatzeko eskualde mailako azpiegiturak eta ekintzak indartzera bideratutako proiektuak. Azpiegitura eta jarduera horiek antolakuntza bat eskatzen dute hazkundera azkartzeko eta proiektu ekintzaileen arrakasta bermatzeko. Horretarako, baliabide fisiko eta enpresei laguntzeko baliabide ugari erabiltzen dituzte, bai orokorrak bai espezifikokoak, enpresa proiektuaren arabera

### Diruz lagundu daitezkeen kostuak

1. Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

2. Ez dira diruz lagungarriak izango:

- barruko langileen kostuak
- bidaiak, dietak eta joan-etorriak; eta,
- gastu orokorrak (amortizazioak eta alokairuak izan ezik) eta zeharkako gastuak

### Diru laguntzen zenbatekoak

1. Diru laguntzak kostu hautagarrien % 100ekoak izango dira.



2. Entitate eskatzaile bakoitzeko gehieneko diru laguntza 50.000 eurokoa izango da.

## Emateko prozedura

Diru laguntzak, deialdi eta hautapen-prozedura bakarreko elkarren lehiaren bidez emango dira.

## Bateragarritasuna ala bateraezintasuna

- Aurreikusitako diru laguntzak ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta, betiere gai horren inguruan beste laguntzetako araudiak esaten duena eragotzi gabe.

- Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko diru laguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Orekako Departamentuari.

## Betetzeko epeak

- Eskaerak aurkezteko epea: **2017ko abenduaren 13an, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.**
- Proiektuen exekuzio data: **2017ko abenduaren 20an amaituko da.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2017ko abenduaren 27a**

## Araudi aplikagarria

[Gipuzkoako eskualdeko ekintzaitzarako ekosistema indartzeko programa](#)

## Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitetasuna/inkubategiak>
- Diru laguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Inguruneko eta  
Lurralde Orekako Departamentua

## Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

### JAKINTZAREN ETA ENPRESA JARDUERAREN SUSTAPEN zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943-112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943- 112218

[sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus)